

**ARAMOTZ MENDI
LASTERKETA 2025
ARAUDIA -
REGLAMENTO**

ARAMOTZ MENDI LASTERKETA 2025

ARAUDIA - REGLAMENTO

1.- Data eta lekua: Aramotz MENDI LASTERKETA, 2025eko urriaren 18an izango da, Amorebieta-Etxanon (Bizkaia), goizeko 10:00etan, Zornotza Mendi Taldeak antolatuta.

2.- Lasterketako ibilbidea : probak 22 kilometro eta 1.300 metroko desnibel positibo metatua du, Urkiolako Parke Naturalaren barruan dagoen Aramotz mendilerroko bidezidor eta pistetatik zehar.

3.- Mendi martxako ibilbidea: probak 15 km eta 800 metroko desnibel positibo metatua du, Urkiolako Parke Naturalaren barruan dagoen Aramotz mendilerroko bidezidor eta pistetatik zehar.

4.- Parte-hartzea: 18 urtetik gorako (probaren egunean beteta) atleta, mendizale edo kirolari guztiek parte hartu ahal izango dute; gehienez 300 parte-hartzaile. Lasterketan izena eman duten parte-hartzaile guztiek araudi hau bete beharko dute. Parte-hartzaileak aitortzen du badakiela zein den probaren zailtasuna eta zein den mendiko lasterketen diziplina.

5.- Kategoriak: GIZONEZKOEN ABSOLUTUA (probako gizonezko parte-hartzaile guztiak) EMAKUMEZKOEN ABSOLUTUA (probako emakumezko parte-hartzaile guztiak) LEHENENGO ZORNOTZARRAK emakumezkoa eta gizonezkoa.

6.-Izen ematea: Izena emateko epea 2025eko martxoaren 1ean, zabalduko da, <https://www.kronoak.com> plataformaren bidez, eta 2025eko urriaren 11n itxiko da, edo plazak betetzen direnean.

7. Baja emateak: Ez da baja ematerik onartuko, salbuespen kasu bakoitza antolatzaileek aztertuko dute.

8.- Prezioa: Izen emateko kuota:

22 kilometroko lasterketan, 22 euro izango dira abuztuaren 31ra arte, eta 26 euro hortik aurrera. Egunean bertan izena emateko aukeraik ez da egongo. Izen-ematearekin, korrikalariaren boltzan: LURBEL galtzerdi pertsonalizatuak eta bertako produktuak oparituko dira.

15 kilometroko mendi martxa, 10 euro izango dira abuztuaren 31ra arte, eta 14 euro hortik aurrera. Egunean bertan izena emateko aukeraik ez da egongo. Izen-ematearekin, martxalariak kamiseta oroigarria jasoko du.

Izena ematearen kuota ordaintzeak proban parte hartzeko eskubidea emango die korrikalariei, horren zerbitzu guztiekin (hornidurak, zerbitzu medikoa, duxak, kontsigna, aseguru, etab.).

9.- Seinaleak: ibilbidea behar bezala seinalizatuta dago, kartel adierazleekin, baliza-zintekin eta banderatzoeekin. Nahitaezkoa da antolatzaileek markatutako ibilbidea egitea probarako.

10.- Nahitaezko materiala: ● Edalontzia/soft-flash/botilatxoa horniduretarako, lasterketan ahalik eta hondakin gutxien sortzeko. Parte-hartzaileek probarako egokiak diren oinetakoak eta jantziak erabiliko dituzte; lurra, eguraldiaren iragarpena eta probaren zailtasuna kontuan hartuta. Lasterketaren aurreko egunetan, antolatzaileek eskubidea izango dute jakinarazteko nahitaez erabili behar dela euritarako edo haizetik babesteko zira, meteorologia txarra bada.

11.- Dorsalak ematea eta kontsigna-zerbitzua: dorsalak Zubiondo Parkean emango dira, probaren egunean bertan, 08: 00etatik aurrera. Bertan, kontsigna uzteko aukera egongo da. Dorsala norberarena da, eta besterenezina; eta nahitaezkoa da parte-hartzailearen jatorrizko NAN erakustea dorsala jasotzeko.

12.- Irteera: Zubiondo parkean izango da urriaren 18an, goizeko 10:00etan.

13.- Kontrolak: ibilaldian zehar, antolatzaileek tarteko kontrol-puntu bat jarriko dute, irteera- eta helmuga-puntuez gain. Nahitaezkoa da horietatik igarotzea, bertan arauzko igarotze-kontrolak egingo dira. Kontrola honako puntu hauetan egongo da: Urtemondoko lepoa, 15. km-a.

14.- Hornidura-guneak: ez da edalontzirik egongo horniduretan. 3 hornidura-gune daude, gehi helmugakoa. Gune horietan, parte-hartzaileei produktu solidoak eta likidoak eskainiko zaizkie (ura, isotonikoa, fruta, galletak, etab.).

Hornidurak honako puntu hauetan egongo dira:

5.5. kilometroan (Likidoak) Kabreruen.

10. kilometroan, Markue txabolan, (solidoa eta likidoak).

16. kilometroan, Belatxikietako hornitze-gunea (solidoa eta likidoak).

15.- Igarotze-denborak eta deskalifikazioak: 22 km-ko lasterketan, helmugan sartzeko **gehieneko denbora 3:30** ordukoa izango da; beraz, ezarritako gehieneko denbora gainditzen dutenek azken sailkapenean agertzeko aukera oro galduko dute. Ibilbidean zehar honako puntu hauetan ere izango dira etenak:

8. km-a, Galdara bidegurutzea: 1:45 ordu (denbora horretan sartzen ez bada, korrikalaria ibilbide alternatibotik bideratuko da).

Nolanahi ere, antolatzaileek parte-hartzaileak probatik erretiratzeko ahalmena izango dute: kronometraje-kontrolarako ezarritako denborak betetzen ez dituzten korrikalariak, markatutako ibilbidea bete ez dutenak, arauzko dorsala agerian ez daramatenak, antolatzaileek segurtasun-gaietan edo beste gai batzuetan emandako jarraibideei jaramonik egiten ez dietenak, gainerako parte-hartzaileekiko kiroltasunik gabeko jarrerari eusten diotenak, baita baldin eta uste badute parte-hartzaileak gaitasun fisikoak edo teknikoak murriztuta dituela nekeagatik, nahitaezkoa den materiala ez badute, edo ez badaude egoera egokian lasterketari ekiteko ere. Deskalifikatzeko erabakiaren eraginpean dauden parte-hartzaile guztiek dorsala eman beharko dute hurbilen duten kontrol-postuan, eta proba utzi beharko dute, antolatzaileen jarraibideen arabera. Antolatzaileek bi lagun jarriko dituzte lasterketa ixteko.

16.- Segurtasuna eta osasun-laguntza: antolatzaileek parte-hartzaileen segurtasuna zaintzeaz arduratuko diren langile espezializatuak jarriko dituzte ibilbidean zehar. Nahitaezkoa da langile horien jarraibideei kasu egitea, behar bezala identifikatuta egongo baitira. Lasterketa utziz gero, lehenbailehen jakinarazi behar zaie antolatzaileei. Ibilbidean zehar osasun-langileak izango dira,

baita irteeran eta helmugan ere. Erakunde antolatzaileak eskubidea izango du lasterketa ibilbide alternatiboetatik desbideratzeko eta beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko, baldintza desberdinen arabera; baita proba bertan behera uzteko ere, baldintza meteorologikoek derrigortuta.

17.- Dutzak: Dutzak egongo dira.

18. Sariak eta sari-banaketa:

22 km-ko Lasterketa

Absolutuak:

1. sailkatua gizonezkoa eta emakumezkoa: Txapela, 200 euro, eta otzara, Uxarte sagardo kutxa.
2. sailkatua gizonezkoa eta emakumezkoa :150 euro eta otzara, Uxarte sagardo Kutxa.
3. sailkatua gizonezkoa eta emakumezkoa :100 euro eta otzara,Uxarte Sagardo Kutxa.
1. zornotzarra gizonezkoa eta emakumezkoa: otzara, bazkaria eta Uxarte Kutxa .

Sari banaketa 13:00etan hasiko da, gutxi gorabehera, helmugan.

19.- Sailkapena: ezarritako gehienezko denboraren barruan ibilbidea bete duten eta deskalifikatu ez diren parte-hartzaile guztiak agertuko dira sailkapenean. Denborari gertatu litezkeen zigorrak gehituko zaizkio.

20. Lehiaketako **epaimahaia** Organo aholku-emailea da, eta proba garatzearen ondorioz sor daitezkeen erreklamazioei erantzuteko ardura du. Lasterketan bertan erreklamazio bat egiten den unean egingo da organo horren deialdia, 13:30ak arte. Hauek osatzen dute: Lehiaketako epailea eta lehiaketako zuzendaria.

21.- Ingurumena: lasterketa, gehienbat, aparteko edertasun naturaleko eta babes handia duten parajeetan zehar egiten da; beraz, guztion betebeharra izango da ingurunea zaintzea, tokiko fauna eta flora ahalik eta gehien errespetatuz, eta aipatutako hornidura-eremuetatik kanpo hondakinak botatzea saihestuz. Horretarako, edukiontziak edo zabor-poltsak jarriko dira hornikuntza-postuetatik 100 metrora. Ibilbide osoak behin-behineko markajea izango du, berrerabilgarria den materialarekin. Parte-hartzaileek arau hau ez betetzea zuzenean deskalifikatzeko arrazoia izango da.

22.- Istripuetan laguntzea: parte-hartzaileak behartuta daude laguntza behar duten zaurituei laguntzera, bai eta igarotze- edo hornidura-kontrolan gertatzen den edozein ezbeharren berri ematera ere.

23.- Gomendatutako materiala: parte-hartzaile guztientzat oso gomendagarria da proba osoan haize-babes bat eramatea. Komeni da haize-babes hori parte-hartzaileari dagokion neurrikoa izatea, mahuka luzekoa eta txanoduna. Txanoaren ordezkari (buff) jar daiteke.

24.- Irudi-eskubideak: erakunde antolatzaileak berak ditu irudiak, argazkiak, bideoa eta proben informazioa hartu eta biltzeko eskubide eskusiboak, parte-hartzaile guztiak inplikaturik baitaude; bai eta material hori guztia iragarkietarako, harreman publikoetarako, edo kazetaritzako, edo

ekitaldia sustatzeko beste edozein helburutarako erabiltzeko eskubidea ere. Edozein proiektu mediatiko edo publizitariok, aldez aurretik, erakundearen baimena izan beharko du.

25.- Aldaketak: erakunde antolatzaileak edozein unetan zuzendu, aldatu edo hobetu dezake erregelamendu hau. Izena emateak parte-hartzailea araudi honekin bat datorrela adierazten du.

26.- Erregelamendu honetan xedatu gabekoetan, Euskal Mendizale Federazioaren Mendiko Lasterketen Erregelamenduan xedatutakoaren arabera jokatu da.

27.- Proba puntuagarria: Durangaldea Kopa Trail koparako proba puntuagarria izango da lasterketa.

28.- MENDI MARTXA: Zornotza mendi taldeak, Aramotz mendi lasterketarekin batera aurtan mendi marxa antolatuko du. 15 km eta 800 M+ eko ibilbidearekin.

-Izen ematea: Izena emateko epea 2025ko martxoaren 1ean , zabalduko da, <https://www.kronoak.com> plataformaren bidez, eta 2024ko urriaren 11n itxiko da, edo plazak betetzen direnean; egunean bertan ez da izen- ematerik onartuko.

Kamiseta opari bezala eskuratzeko **irailaren 18a** baino lehen eman beharko da izena.

Irteera goizeko **08:30**ean Zubiondo parketik.

Martxa hasi aurretik kafea eta pastak hartzeko aukera egongo da.

Hornidura gunetik likidoa egongo da 5. km-an, **Kabreruen**, eta likido eta solidoa **Belatxikietan**, 9.km-an.

Martxa bukatzean dutxatzeko aukera egongo da.

Ibilbidea behar bezala adierazita egongo da.

Ibilbidean zehar osasun-zerbitzua egongo da.

Federatuta egotea gomendatzen dugu. Istripu edo ezbeharrik gertatzen bada ibilbidean zehar, edo haren ondorioz, erakunde antolatzailea ez da horren erantzule izango, eta parte hartzaileek ez dute kalte ordainetarako inolako eskubiderik izango.

Txakurrak lotuta joan beharko dira ibilbide guztian zehar.

Naturarekiko errespetu osoa eskatzen dugu.

ARAMOTZ MENDI LASTERKETA 2025

ARAUDIA - REGLAMENTO

1.- Fecha y lugar: ARAMOTZ MENDI LASTERKETA ,se celebrará el 18 de octubre 2025, con salida y llegada en la localidad de Amorebieta-Etxano (Bizkaia) a las 10:00 horas organizado por Zornotza Mendi Taldea.

2.- Recorrido carrera : La prueba cuenta con un recorrido de 22 kilómetros y 1.300 metros de desnivel positivo acumulado, discurriendo por los senderos y pistas de la Sierra de Aramotz dentro del Parque Natural de Urkiola.

3.-Recorrido mendi martxa: La prueba cuenta con un recorrido de 15 km y 800m + discurriendo por los senderos y pistas de la Sierra de Aramotz dentro del Parque Natural de Urkiola.

4.- Participación: Podrán participar todos los atletas, montañeros o deportistas mayores de 18 años (cumplidos el día de la prueba), hasta un máximo de 300 participantes. Estando obligados todos los participantes inscritos a cumplir con el presente reglamento. El participante reconoce ser conocedor de la dificultad de la prueba y de la disciplina de carreras por montaña.

5.- Categorías:

ABSOLUTO MASCULINO (Todos los participantes masculinos de la prueba)

ABSOLUTO FEMENINO (Todos los participantes femeninos de la prueba)

PRIMER@S ZORNOTZARRAS

6.- Inscripciones: El período de inscripciones comenzará el 1 de marzo a través de la plataforma de inscripciones <https://www.kronoak.com>, y finalizarán el 11 de octubre de 2025 hasta las 20:00 horas o cuando se completen las plazas.

7.-Darse de baja: No se acepta la anulación de la inscripción, en todo caso, cada situación excepcional será examinada por la organización.

8.- Precio:

La cuota de inscripción será de **22 euros** para la **carrera de 22 kilómetros** hasta el 31 de agosto, y **26 euros** de ahí en adelante. En la bolsa del corredor tendréis: Calcetines LURBEL personalizados, productos locales etc.

Mendi martxa: la cuota será de **10 euros** hasta el 31 de agosto y de **14 euros** de esa fecha en adelante. No habrá opción de inscribirse el día de la prueba. Con la inscripción los marchistas recibirán una **camiseta conmemorativa**.

El pago del precio les dará el derecho a los inscritos a participar en la prueba con todos sus servicios (avituallamientos, asistencia médica, duchas, consigna, seguro, etc.).

9.- Señalización: El recorrido está debidamente señalizado con carteles indicadores y cintas de balizamiento y banderines bien visibles. Siendo obligatorio realizar el recorrido marcado por la organización para la prueba.

10.- Material obligatorio: Vaso o shoft-flash, El participante llevará un calzado y vestimenta adecuada a la prueba. Teniendo en cuenta el terreno, pronóstico meteorológico y dificultad de la prueba.

11.- Entrega de dorsales y servicio de consigna : La entrega de dorsales se efectuará en el Parque Zubiondo, el mismo día de la prueba a partir de las 08:00 de la mañana. Allí mismo habrá opción de dejar la consigna. El dorsal es personal siendo obligatorio mostrar el DNI original del participante para recoger el dorsal.

12.-Salida:

La salida para la prueba de **22 kilómetros** será a las **1:00 am** ,desde el Parque Zubiondo.

13.- Controles: En el desarrollo de la prueba la organización ha dispuesto de 1 punto de control intermedios aparte del de salida , siendo obligatorio el paso por el mismo. Se efectuarán en el collado de Urtemondo km 15.

14.- Avituallamientos:No habrá vasos en los avituallamientos. Se disponen de 3 puntos de avituallamiento más el de meta para la carrera de 22 kilómetros . En estos puntos se ofrecerán a los participantes productos sólidos y líquidos (agua, isotónico, fruta, galletas, etc.). Los avituallamientos estarán situados en los siguientes puntos:

Carrera de 22 kilómetros:

km 5.5 Avituallamiento Cabrero (líquido).

km 10 Avituallamiento Markue txabola (sólido y líquido).

km 16 Avituallamiento Belatxikieta (Sólido y líquido).

15.-Tiempos de paso y descalificaciones: En la carrera de 22 km el **tiempo máximo** de entrada en meta **será de 03:30 horas** , por lo que quienes excedan el tiempo máximo establecido perderán toda opción de figurar en la clasificación final. También habrá cortes horarios durante el recorrido en los siguientes puntos:

Km 8 Cruce Galdara 1h45min, (El corredor que no entre en ese tiempo, será dirigido por un recorrido alternativo.

En cualquier caso, los responsables de la organización tendrán potestad para retirar de la prueba: a los corredores que no cumplan con las expectativas de los tiempos establecidos para los controles de cronometraje, no haya completado el recorrido marcado, no lleve el dorsal reglamentario de forma visible, desatienda las indicaciones de los organizadores en temas de seguridad u otros, mantenga una actitud poco deportiva hacia los demás participantes, cuando consideren que este tenga mermadas sus capacidades físicas o técnicas como causa de la fatiga, no disponga del material obligatorio, o sus condiciones no sean las apropiadas para continuar en carrera. Todos aquellos participantes que se vean afectados por una decisión de

descalificación deberán hacer entrega del dorsal en el puesto de control más cercano y abandonar la prueba atendiendo a las indicaciones de los miembros de la organización. La organización tiene prevista la participación de dos personas que actuarán como cierre de carrera.

16.- Seguridad y Asistencia sanitaria: La organización situará durante el recorrido personal especializado encargado de velar por la seguridad de los participantes. Es obligatorio seguir las indicaciones de este personal, que estará convenientemente identificado. En caso de abandono hay que comunicarlo lo antes posible al personal de la organización. Se dispondrá de personal sanitario durante el recorrido para intervenir en caso de necesidad y en la zona de salida-llegada. La organización se reserva el derecho a desviar la carrera por recorridos alternativos y realizar las modificaciones que considere necesarias en función de los diferentes condicionantes, así como la suspensión de la prueba si las condiciones meteorológicas lo obligan o por fuerza mayor.

17.- Duchas: Habrá duchas.

18- Premios:

CARRERA 22 km:

1. Primer clasificado masculino y femenino: Txapela, 200euros, cesta y Caja de sidra Uxarte.
2. Segundo clasificado masculino y femenino:150 euros, cesta y Caja de sidra Uxarte.
3. Tercer clasificado masculino y femenino:100 euros, cesta y caja de sidra Uxarte.

1.Primer@s Zornotzarras: Cesta, una comida para 2 y caja de sidra Uxarte.

El reparto de premios comenzará a las 13:00 aproximadamente en la zona de meta.

19.- Jurado de carrera: Es un órgano consultivo, y se encarga de responder a las reclamaciones que puedan surgir como consecuencia del desarrollo de la prueba. Se llamará al órgano cuando se haga una reclamación dentro de la carrera, hasta las 13:00 horas.

Lo componen: El Juez de carrera y Director de la competición.

20.- Clasificación: En la clasificación figuran todos los participantes que han completado el recorrido dentro del tiempo máximo establecido y no hayan sido descalificados. Siendo añadidos al tiempo, las posibles penalizaciones.

21.- Medio ambiente: La carrera se desarrolla en su mayor parte por parajes de excepcional belleza natural y gran protección, por lo que será obligación de todos preservar el entorno respetando al máximo la fauna y flora del lugar, y evitando arrojar desperdicios fuera de las áreas de avituallamiento indicadas. A tal efecto se colocarán contenedores o bolsas de basura hasta una distancia de 100 metros desde el puesto de avituallamiento. Será motivo de descalificación directa el incumplimiento de esta norma por parte de los participantes. Todo el recorrido estará marcado provisionalmente con material reciclable .

22.- Auxilio en accidentes: Los participantes están obligados a auxiliar a los accidentados que necesiten ayuda, así como a informar de cualquier percance en los controles de paso o avituallamientos.

23.- Material recomendado: Es muy recomendable para todos los participantes portar durante el transcurso de toda la prueba un cortaviento. Este cortaviento se recomienda que sea de la talla correspondiente al participante, con mangas largas y capucha. Pudiendo ser sustituido la capucha por una braga (buff).

24.- Derechos de imagen: La organización se reserva los derechos exclusivos de las imágenes, de tomar y recopilar fotografías, vídeo e información de las pruebas, en las que todos los participantes están implicados, así como de utilizar todo este material para anuncios, relaciones públicas o cualquier otro propósito periodístico o de promoción del evento. Cualquier proyecto mediático o publicitario deberá contar previamente con el consentimiento de la organización.

25.- Modificaciones: El presente reglamento puede ser corregido, modificado o mejorado en cualquier momento por parte de la organización. El hecho de realizar la inscripción muestra la conformidad del participante con este reglamento.

26.- En lo no dispuesto en este reglamento, se contempla lo dispuesto en el Reglamento de Carreras por Montaña de la Federación Vasca de Montaña en vigor.

27.- Prueba puntuable: La carrera es una prueba puntuable para la copa de, Durangaldeko Kopa Trail.

28.- MENDI MARTXA : Zornotza Mendi Taldea, junto con la carrera Aramotz mendi lasterketa este año organiza una Mendi martxa con un recorrido de 15 km y 800 m+.

Inscripción: el plazo de inscripción se abrirá el 1 de marzo de 2025 a través de la plataforma , <https://www.kronoak.com> , y se cerrará el 11 de octubre de 2025. No habrá opción de apuntarse el mismo día de la prueba.

Para conseguir la **camiseta** conmemorativa, habrá que inscribirse antes del **18 de septiembre**.

Salida 08:30 desde el parque Zubiondo.

Habrán un **avituallamiento** líquido en **Cabrero km 5** y sólido y líquido en **Belatxikieta** en el **km 9**,

Habrán opción de ducharse.

El recorrido estará señalizado.

Se recomienda federado. Si se produce algún accidente o percance durante o como consecuencia de la ruta, la organización no será responsable del mismo y los participantes no tendrán derecho a indemnización.

Los perros deberán ir atados durante toda la ruta.

Se requiere respeto total por la naturaleza.